

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazlea, Euskal Filologian lizen-
tziatua eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,


EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak hil honen 13an Mendatako udaletxean eginiko az-
keneko bilkuran beste gai batzuen artean *Basurtu/Basurto* izenaz egindako es-
kaera aztertu zuen, lehenagoko erabakia, hots, euskaraz **BASURTU** dela be-
rretsiz.

Basurtu izena, nahiz eta oraintsurarteko hizkuntza ofizial bakarretik baz-
tertuta egon, bizirik dago euskaldunon ahotan, bai Bilbo inguruan, baita Biz-
kaia osoan ere bertan egon ziren abere feria eta dagoen ospitalea direla
medio. *Vasurtu* eran ageri da, besteak beste XV. mendean idatzitako *Bienan-
danzas e Fortunas* “*En el año del Señor de mil CDXLVII años pelearon los
de Ligiçamon e los de Arvolancha e algunos de los de Vasurtu con los de Çur-
baran en el Arena e fueron vencidos los de Çurbaran...*” (ikus eranskina),
Deustu bezala, nahiz eta geroago erdal arauen arabera moldatutako *Basurto*
nagusitu den. Gogoan izan behar dugu ohikoa izan dela administrazioak eus-
kal izena erdararaen lege fonetikoaren arabera moldatzea *Luku /Luco* (A), *Mu-
triku / Motrico* (G), *Atallu / Atallo* (N), e.a.

Eta hala adierazteko eta eskatzaileari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi
mila eta batgarreneko uztailaren hemeretzian.

O. I.



Andres Iñigo Ariztegi,
batzordeburua



Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordeko idazkaria